

noaia

**Palestinar herriari babesa
adierazteko, elkarretaratzea
egingo da ostiral honetan**

**Parke berri bat zabalduko da
asteon: Arsuagaenea**

**40 tona tapoi batu ditu
Beñat Lizasok**

**Etorkizuna amestu, eta marraztu
Irailetik aurrera, partehartze prozesua jarriko da martxan**




ORDUTEGI BERRIA:
egunero 06:00tik 21:00ra

asteburutan ere
gaueko 21:00ak arte!

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

PSU
serigrafia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



OPORRETARA GOAZ!!! DATORREN ALDIZKARIA IRAILAREN SEAN

Bidali zure oharrak, agurrak, iragarkiak... erredakzioa@noaua.com helbidera

noaua

Albistea iruditan

Munduko ahots onenei saria

Baten faltan urrezko bi domina irabazi ditu Landarbaso abesbatzak, asteburuan Rigan (Letonia) ospatu den mundu mailako txapelketan. Eta nola ez, Ourretako abesbatzan ere ahots usurbildarrak ditugu. Urrezko dominekin pozik asko ageri den argazkiko laukotea; **Agurne Alkorta, Iñaki Zugasti, Eli Eizagirre eta Maialen Pagola**. Zorionak! Abesbatzen mundu mailako txapelketa jokatu den hiriburua gainera, 2014ko Europako kultur hiriburua ere badugu, 2016an Donostia izango den moduan.



Landarbaso abesbatzarekin lau usurbildar hauek hartu dute parte.

Laburrean

1958koen kinto bazkarian izena emateko epea zabalik

Irailaren 13rako antolatu dute kinto bazkaria, Antxeta jatetxean. Izena emateko azken eguna, irailaren 8a. Prezioa 40 euro.

Ordainketak, aurrez Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan egin behar dira: 3035 0140 33 1400028867.

Mattinen erakusketa Artzabalen

"BIOTzez BIOntzat. Bihotzetik biotzera" izena du uztaila amaitu arte Artzabalen ikusgai egongo den erakusketak; Iñaki Martiarena "Mattin" artistak urmargo eta tenperaz sorturiko bilduma da Artzabalen aurkituko duzue-na.

Langabetuak kontratatzeko dirulaguntzak

Eskualde mailako udalek eginiko deialdia, bailarako enpresa eta profesionaleri zuzendua dago. Diru-laguntzak jaso ditzakete, langabetuak kontratatzen dituztenek.

Informazio gehiago, udaletxean.
943 371 951 / enplegu@usurbil.net

noaúa

Kultur Elkartea

Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noaúa.com // www.noaúa.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Bea Alda, publizitatea@noaúa.com.

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaúa.com.

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria, María Angeles Arruti, Aina

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Legè-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

Aita Menni

Garai batean "santaera" deitzen genion Gesalibarren (Arrasateko auzoa) dagoen zentro psikiatrikoari; behin baino gehiagotan joan naiz gaixoak bisitatzerara. Aita Menni erakunde deitzen da gaur. Aurten betetzen dira ehun urte hil zela filantropo bikain hau eta hainbat ekintza antolatu dituzte efemeride hau egoki ospatu ahal izateko.

Bitxia da zentro honen sorrera: 1825etik 1897ra Santa Agueda bainuetxe edo terma ospetsua izan zen. Izen handia zuen estatu mailan eta jauntxo jende anitz erakarri zuen bertara: ministroak, jeneralak, Isabel II.a erregina bera ere bai. Elite osoa. Zezen plazatxo bat ere eraiki omen zuten jende hain "inportantea" dibertitu zedin. Baina, luxuzko bizimodu honen amaiera Angiolillo Folli italiar anarkistak eragin zuen: Antonio Cánovas del Castillo, Espainiako presidentea, bere emaztearen zain zegoela bainu etxean hiru tiroz hil zuten. Arrazoia: Montjuic-en bi hilabete lehenago anarkistaren bost lagun exekutatu zituztela eta horren mendekua hartu nahi izan

zuela. Anarkista Bergaran urkatu zuten. Atentatuaren ondorioa izan zen bainuetxea likidatzea urte hartan bertan.

Hurrengo urtean Aita Menni apaiz erlijioso ospitalarioak erosi zuen terma bere kongregazioaren izenean eta duela 116 urte bertan inauguratu zituen bi ospitale psikiatriko.

Biografia: Milanen jaio zen 1841ean. 15 urte zituela Austriarekin gerran zebilen Italia. Boluntario bezala aurkeztu zen zaurituak eramateko Milango tren geltokitik San Juan de Diosko fraideek zekaten ospitale batera. Hor izan zituen lehen harreman zuzenak sufrimendurekin. 1967an San Juan de Diosko orden erlijiosoan apaiz sagratu zuten. Urte horretan bertan eraiki zuen Bartzelonan lehen haur ospitalea. Eskoriatzan ere sortu zuen zentro bat buruko gaixotasunak jota zeudenentzat umezurtzentzat eta agure baztertuentzat. Baina, arazo politikoak zirela eta, porrot egin zuen proiektu horrek. Azkenean, goian aipaturiko anarkistaren gora beherei esker aukera izan zuen Gesalibarren zen-

tro psikiatriko bikain bat eraikitzeke. Dinanen (Frantzia) hil zen 1914ko apirilaren 14an. Joan Paulo II.ak kanonizatu zuen 1999an.

Menniren ondarea: egun, Gesalibarko ospitale gunean 380 langile ari dira; 530 gaixo zaintzen dituzte; 450 ohe dauzkate; gune bereziak eratu dituzte buruko gaixotasun larriak dituztenentzat; psikogeriatria unitate batzuk, garuneko kalte larriak sendatzeko une berezi bat... Gesalibarko zentroaz aparte, beste hamabi eraiki zituen Espainian zehar.

Bere filosofia: psikiatria modernoaren aitzat hartzen dute askok. Aita Menniren xedea edo helburua gaixotasun mentalak edo urritasun fisikoak zein psikikoak dituztenei babesa ematea izan zen eta beraien osasun integrala zaindu, beti ere behar handiena dutenei laguntza berezia eskainiz. Berek dira honako esaldi hauek: "arreta medikua baino gehiago da gurea: arreta pertsonala; gure ospitaleak ospitalitatez jantziak daude; ongizate fisikoa baino gehiago lortu nahi dugu: ongizate osoa; tratamendu ematea baino gehiago

nahi dugu: babesa eta maitasuna eskaini nahi diegu". Horregatik esan daiteke aitzindaria izan zela arreta psikiatrikoan eta bere lanak ondorio oso garrantzitsuak izan zituen Espainia osoan buruko gaixotasunak dituztenei laguntzeko estiloan; askoz gertuagokoa, pertsonaren ongizate osoa eta duintasuna zaintzen dituena eta elkar-tuz beti zientzia eta maitasuna.

Aita Mennin lanean ari direnek honela diote: "kalitatezko asistentzia eskaintzen dugu, pertsonaren alderdi biologiko, psikiko eta sozialarekin gain, izpiritualak, etikoak eta harremanetakoak jorratzen ditugu. Gure ezaugarritzat dugun balorea abegikortasuna edo ospitalitate da, alegia, egoera ahulean dagoen pertsona gurean hartzen dugu eta denbora eta tokia eskaintzen dizkiogu arraza, sexua, ideologia, erlijioa eta klase sozialaren arabera bereizketarik egin gabe". Hauxe zen fundatzailearen estiloa eta filosofia.

Aita Menniren zentroek lanean dihardute sare publikoko ospitaleko psikiatria zerbitzuekin bat eginez.

Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Nerea Zinkunegi

Oporretara goaz, irailaren 5ean bueltan gara

Esku artean duzuen astekari honekin bagoaz oporretara. Irailaren 5ean jasoko duzue hurrengo NOAUA! Astekari horretarako zorion agur edo oharririk duzuenok, irailaren 1a baino lehen helarazi erredakzioa@noaua.com helbi-

dera, 943 360 321 telefono zenbakira deitu edota egoitzara etorri. Egoitza itxita egongo da abuztuaren.

Bazkidetza kobraketak

NOAUA!ko bazkidetza kobraketak hasi ditugu. Kuota, ia bezala, 36 euro-

koa izango da. Kutxa bidez kobraketak egiteko baimena eman badiguzu, bide hori erabiliko dugu aurten ere. Ordainketa eskuz egiten duzuenok NOAUA!ren kontu korrontean sartu beharko duzue dirua edo egoitzara ekarri. Hauxe da kultur elkarteko

kontu korronteko zenbakia: Kutxa-bank: 2095 5069 04 1061881826. Oraindik NOAUA!ko bazkide ez bazara, orain duzu aukera.

Deitu 943 360 321 telefono zenbakira edo idatzi elkarte@noaua.com helbidera.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: irailak 5. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 1.

Palestinar herriari babesa adierazteko, elkarretaratzea Mikel Laboa plazan

'PALESTINAREKIN ELKARTASUNA' IDATZIA ADOSTU DUTE ELKARTASUN TALDEAK ETA GAZTETXEAK

Usurbilgo Elkartasun taldeak eta Usurbilgo Gaztetxeak deituta, elkarretaratzea egingo dute ostiral honetan, Mikel Laboa plazan, Israel Gazan egiten ari den operazioa salatu eta palestinarrei elkartasuna adierazteko. 20:00etan hasiko da elkarretaratzea. Segidan irakurriko duzuen idatzia antolatzaileek adostu eta NOAUAra igorritakoa da.

Palestinarekin elkartasuna

Israeliek Palestinan gauzatzen ari den eraso militarren aurrean gure hunkipena eta Palestinarekiko elkartasuna adierazten dugu.

Biolentzia areagotzen aste bete pasa eta gero, israeldarren azken eraso militar honek 160 pertsonatik gora erail dituela eta gutxienez beste 1.000 pertsona zauritu dituztela salatzen dugu, gehienak zibilak dira.

Era berean, Israeliek bonbardaketaz aparte, Gazako zerrendan ura, elektrizitatea eta erregai-tzen aldizkako mozketa egiten jarraitzen du. Jakina da 2007. urtetik biztanle hauek Israelgo Gobernuak inposatutako blokeo ilegalak pairatzen dutela, eta giza hondamendirako arriskua dagoela ohartarazi du Osasunaren Mundu Erakundeak. Egun hauetan, milaka eta milaka palestinar ikastetxeetan eta Nazio Batuen egoitzan babes bila dabilta Gazan.

Israelen Nazioarteko Giza Eskubideen bortxa-



Ostiral honetan egingo da elkarretaratzea, arratsaldeko 20:00etan. Gazako irudia (UH Noticias).

keta sistematikoa eta Lurralde Palestinarraren okupazio ilegalak berriro ozenki salatzen dugu. Giza Eskubideen bortxaketa hauek herri palestinarra osoa zigortzeko planifikatuak eta diseinatuak direla kontzientek gara.

Hau dela eta, palestinar herriari gure babesa, elkartasuna eta errespetua adierazteko, Usurbilgo herritarrek ostiralean gaueko 20:00etan Mikel Laboaren plazan burutuko den kontzentrazioan

parte hartzera gonbidatzen ditugu.

Usurbilgo Elkartasun Taldea,
Usurbilgo Gaztetxea

PALESTINAREKIN ELKARTASUNA

- Non: Mikel Laboa Plazan.
- Eguna: Uztailak 18 ostirala.
- Ordua: 20:00etan.

Azken balorazioarekin, udako eskolen amaiera

Italiako egoera politikoa aztertu ostean, ostiral honetan amaituko dira aurtengoz, herriko gazte talde batek antolatu dituen udako eskolak. Ekimen honen inguruko azken balorazioarekin agurtuko dute, herritarren jakintzak besteekin partekatzea helburu zuen ekimena:

Uztailak 16, asteazkena

17:00 "Italiako ultraeskuinaren augea". Hizlaria: Xuban Zubiria. Usurbilgo Gaztetxean.

Uztailak 18, ostirala

17:00 Mahai-ingurua: "Udako Eskolen balorazioa". Usurbilgo Gaztetxean.

Oharra: saioak libreak eta irekiak izango dira, nahi duen oro gerturatu liteke.



Usurbilgo gaztetxeko saioak libreak eta irekiak izan dira.



KALEBERRI

MADDI ZALDUA

Ñam ñam, on egin!

Santixabelak amaitu, eta abiatu zaizkigu herriko gazteenak Peñaloscintosera. Bainujantzia, toaila, kamisetak, mendiko botak... prestatu eta gogoz betetako motxila bizkar gainean hartuta heldu dira hara, egun polit batzuk igarotzeko asmoz. Egunak zoragarriak dira Peñaloscintosen; jolasak, negarrak, dantzaldiak, tripako minak, garbiketak, lakuko bainu "zikinak",... denak elkarlanean beti ere. Hori da guztia politagoa egiten duena, elkarlana. Baina, ez usurbildarren artekoa soilik; Peñaloscintoseko auzotarrekin ere, etengabeko hartu emana baitu kanpaldiak. Urte guztia herritarren bisitaren zain egon ohi direla esaten digute beti, eta behin hara helduta, erregeen pare zaintzen gaituzte.

Bestalde, aitortu beharra daukat, gazteenak ezin hobeto zaindu eta ahalik eta gehien gozarazteaz arduratuko den taldea paregabea dela. Hasi begirale talde zabaletik, sukaldeko lan taldea, laguntzaile guztiak, mantenuko mutilak, eta abar. Ezinbestekoa guztien lana!

Orain, beraz, gozatzea besterik ez zaio geratzen talde guztiari! Denbora luzeko lan eta buru hausteez merezi dute, zalantzatik gabe, aurtengoan ere baieztatuz dezakegu.

Eta bigarren txandakoak hasi motxilak prestatzen, heltzear da eta zuen aukera! Gozatu, laster naiz bisitan!



AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

Baxurde, orkatz, azeri

Behin behar eta aurten piperra aldatzeko garaian baxurde hanka marka ugari ikusteko aukera izan dugu lur sailetan, baita plastikoa jarri eta gero ere. Pelukeroak esanda, gizon bat etortzen omen zaio Urbasatik urtean bitan, lursailen inguruan zabaltzeko moztutako ilearen bila eta horrek baxurdeak uxatzen omen ditu. Hala bada edo ez, berak emandako ile mordoxka zabaldu dute gure piper sailetan, eta oraingoz behintzat, bere aholkuari esker funtzionatu du.

Eta erriorearen beste aldean berriz, orkatzak (kortzoak) ditugu biztanle, oso dotoreak dira jostatzen eta saltoka ikusteko, baina zuhaitzen puntak jaten sagarretan kalte handia egiten omen dute.

Azeria ere etxe ondoan dabilkigu denboraldi honetan. Goizaldean azaltzen zaigu, oiolotara etorrita, orain dela 10 egun ikusi nuen, leihora atera nintzen zakur zaunka eta oiloen zaratarekin. Linternarekin argi egin nionean begira jarri zitzaidan begi distiratsu askoak zituela. Pinudi aldean ezkutatu zen.

Amaitzeko zuzenketa bat. Maiatzaren 16ko NOAA!n, garai bateko dantza talde kideez aritu nintzen. Ixar Izagirre zen kideetako bat, ez lkutza. Lerro hauetatik opor zoriotsuak denoi!



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Mugimenduak

Oporren eta festen atarian, mugimenduak Zubietan. Ikasturte honetan idatzi dut gainbeheraren traza zekarten Araeta eta Alamandegitarbarnen itxieraz. Baina, tira, oporren bezperetan gehienok indargauden honetan badirudi beste batzuk indarrez lepo datozela eta berritasun ugari dugu festen atarian.

Batetik, Festa Batzordean belaunaldi aldaketa islatzen ari da eta odol berriak hartu du festak antolatzeko arduraren lekukoa. Ea bada odol berri horrek festen inguruko sormenean ere eragina duen.

Bestetik, Araeta eta Alamandegitarbarnetako jabe berriek ere festa bezperatarako ere lortu dute beren tabernak irekitzea eta, horrenbestez, Festa Batzordearen txosnaren osagarri izango dira. Aurten ere izango da, bai, aukerarik jan-edanetarako eta musikarako!

Azkenik, festez haragoko mugimendurik ere egon da azkenaldian Zubietan. Erraustegia zihoan gunerako hondakinen kudeaketarekin lotura Aldundiak prestatu duen instalazio-multzoa ere aurkeztu du eta soka luzea ekarriko du horrek ere.

Utzi ditzagun atzean keak eta nekeak, gozatu festetan eta hartu arnasa oportretan. Ondo passau!



ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Zirimiri

Herriko festak pasa berriak ditugu, euritan ibili gara egun gehienetan, baina hala ere gazteek ondo pasa zuten. Jendearen partetik aho batez entzuten zen, lastima zela zirimiria ari zuelako, baina ezin ezer egin. Jakin nuenez, lagun batzuk etorri ziren Valentziatik Usurbil ezagutzera, festa giro betean. "Ze freskura ederra dagoen!" zioten, mendi berde eta politak, paisaia dotoreak ditugula.

"Zortedunak zarete!" nabarmetzen zuten. Asko gustatu zaie hemengo giroa, janaria eta sagardoa, jendea atsegina dela aipatzen zuten, Donostiako hondartzak paregabeak. Baita Getariako txakolina, Balentziaga Museoa, Loiolako San Inazio eliza, "8 apellidos vascos" filma ikusia zuten, San Telmo ermitara hurbildu ahal izatea...

Konturatzen al gara?

Neure galdera. Konturatzen al gara zer daukagun oso hurbil, eta ba ote dakigu eskertzen edo gozatzen? Berriz ere gustura etorriko direla esan didate.

Arsuagaenea parkea, denontzat zabalik

BI SARRERA IZANGO DITU: BAT TXIKIERDI GOIKALDETIK ETA BESTEA LASARTE-ORIAKO ERREPIDETIK

Ostegun honetatik, uztailearen 17tik aurrera izango da. Ekitaldi bat egingo da bertan, eguerdiko 12:00etan, eta hortik aurrera "herritar orok izango du bertako baso eta zelaiaz gozatzeko aukera", Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.

Eta hau posible izango da, egungo udal gobernu taldeak lorategiko balioa ikusita, izaera publikoa berreskuratzeko eginiko lanaren ostean. "Horma zaharrak egokitzearekin batera, bi sarrera nagusi izango ditu, Txikiardi goikaldetik eta Lasarte-Oriako errepidetik", berri eman dute Udaletik.

Hartara, orain arte parkera gerturatzeko zeuden trabak iraganeko kontuak izango dira laster. Orain arte hain zuzen, "hormaz ingururuta eta sarrera bakar bat zuen eraiki berrietako etxe tartetik. Baldintza honek izaera pribatua ematen zion parkeari".



Udal gobernu taldeak parkearen izaera publikoa berreskuratzeko ahalegina egin du.

Lasarte-Oriako lurrekin mugan da parkea.

Landaredi aldetik aberatsa

Lorategiaren izaera publikoa berreskuratuta, 1999. urtean Udalaren esku geratu zen gunea barrutik ezagutzeko aukera egongo da ostegunetik aurrera. Bitan zatitua dago parkea;

igerilekua edo joko zelaia zegoen eremu irekia du batetik eta bestetik, 60-80 urte izan ditzakeen basoa, 60-80 urte arteko zedro eta banbu baso itxiarekin. Beste espezie guztiok ere

aurkitu daitezke Arsuagaenean: izeia, astigar zuria, Atlasko eta Himalaiako zedroa, pago gorria, lizarra, magnolia, itsas pinua, pinazi pinua, gerezi-aranondoa, ezki hostozabala...



Ostegunetik aurrera, parkea barrutik ezagutu ahal izango dugu.



Espezie ezberdineko zuhaitzak aurkitzen dira parke berrian.

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK



645417665
XABIER
Usurbil

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra

943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net

Oztaran auzoa 33, URNIETA

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725


ARRANDEGIA
PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL




Irailetik, etorkizuneko Usurbil eraikitzena



Udal iturriek aditzera eman dutenez, "Usurbil, oraina da geroa" partehartze prozesua irailan ipiniko da martxan.

Etorkizuneko Usurbil marraztera goaz", hauxe irailetik aurrera sarritan entzungo dugun aldarrria. Gogoan izan baita, sigla hauek: HAPO. Uda ostean ezaguna egingo zaizue HAPO edo Hiria Antolatze Plan Orokorra. Udalak plan hau herritarrekin batera diseinatu edo marraztu nahi du, abian jarriko duen "Usurbil, oraina da geroa" izeneko parte hartze prozesu berri baten bidez. Egitasmo honen erronka potoloa da; Udalak eta herritarrek, elkarlanean, nahi dugun etorkizuneko Usurbil diseinatzea.

"Herriko arazo eta aukerak aztertuko ditugu eta denon artean etorkizunean nolako herria nahi dugun erabakiko dugu. Udaletik gonbitea luzatzen da prozesuan parte hartzeko", adierazi dute Udaletik.

Hainbat bilera egingo dira irailetik aurrera. Gaika eta auzoka antolatu dute parte hartze prozesuko hitzordu sorta. "Hasteko, herria ondorengo eremutan aztertuko dugu: Lurralde antolaketa; Jarduera ekonomikoak, komertzioak eta nekazaritza; Ekipamenduak, zerbitzuak eta azpiegiturak eta Mugikortasuna eta ingurugiroa. Gai bakoitzarekin lan saio bat egingo da, bina bilera", Udaletik diotenez.

Auzoak eta ikasleak ere partaide

Horri auzoz auzoko bilera erronda gehitu behar. Bere izaera eta behar propioak dituztenez, Aginagan eta Zubietan bina bilera egingo dira. Kalezar, Santuenea eta Urdaiaga auzoetako ikuspegiak ere kontuan hartuko dira, eta ikuspegiok, Kaxkoan deituko diren lau bileretan lantzekoak

dira. Herriguneko bi bilera euskaraz izango dira, eta beste biak erdaraz.

Helduak, haur eta gaztetxoak ere inplikatu dituzte parte hartze prozesuak. "6-16 urte bitarteko gaztetxoekin ere bilerak egingo dira eskolan euren ikuspegia eta ekarpenak jasotzeko", adierazi dute Udaletik.

Talde eragile batek bideratuko du guztia. Parte hartze prozesuko metodologia garatu eta dinamizatzeko aurrez Usurbilen egin izan diren beste parte hartze prozesuetako bideratzaile Nicola Foroni aholkularia kontratatu du Udalak, eta jarraipen tekniko egiteko Jone Miner arkitektoa. Lan taldea prest da, lanean ari da irailetik aurrera datorrena prestatzen. Zehaztasun gehiago, uda osteko lehen NOAUA!n, irailaren 5eko 583. astekarian.

Aurrera begirako bide-orria

Udalerrri honen etorkizuneko erronkei aurre egiteko, datorren Usurbil gauzatu ahal izateko landuko du Udalak herritarrekin batera, Hiria Antolatze Plan Orokorra. Irailan abiatuko den parte hartze prozesuaren bidez, aurretik zegoen Hiria Antolatze Plan Orokorra eguneratu nahi da, "egun-egoera sozial, ekonomiko eta demografikoak" hala egitea eskatzen du eta, Udalaren esanetan.

Erronkei aurre egiteko

Garrantzia handiko plan batez ari gara. Udaletik diotenez, "Hiria Antolatze Planak (HAPO) hiriarren eta nekazaritza eremuaren egoera eta gure bizimodua azterturik etorkizuneko erronkei aurre egiteko balioko du, hirigintza teknika egokien bitartez. Hala, udalerrian lurzoruaren erabilerak eta eraikigarritasunak, eta gauzatu daitezkeen erabilera eta jarduerak zehazten ditu, besteak beste. Ondorioz, zuzeneko eragina du udalerrriaren eraldaketan, garapen ekonomikoan eta, beraz, baita herritarren bizimoduan ere.

Herriko lurrik ezango duten erabilera ezberdinak definitzen ditu. Natura babesteko eremuak, industriaguneak, etxebizitza, mugikortasuna, jarduera ekonomiko eta sozialak, ekipamenduak eta ondare historiko eta kulturalari dagokionean beharrezkoak diren neurriak zehaztu eta programatzen ditu, etorkizunean nahi dugun Usurbil aurrera eramanez ahal izateko".

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net


ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



2014

SANTIOAK

gehigarri berezia





USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

☎ 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

Jai zoriontsuak opa dizkizue!!!

Heziketa zikloetarako sarbide frogarako ikastaroak



39 urte
Pertsonak hezitzen

Erdi eta goi mailako
zikloak A eta D Ereduak

- Administrazioa eta kudeaketa
- Elektrizitate-elektronika
- Fabrikazio mekanikoa
- Ura eta energia
- Produktio zerbitzu eta manten.

Etarte bidea 9, Zubieta

eskola@lhusurbil.com



Santio jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

BARAZAR
OSTATU-JATETXEA

LOGELAK KOMUNAREKIN
AFARIAK EGUNERO
BAZKARIAK IGANDE ETA
JAIEGUNETAN

943 36 33 58 ARBITZA BIDEA, ZUBIETA

... IREKIERA BERRIA ...

ALAMANDEGI JATETXEA

• Asteazken zehar eguneko menua
• Asteburuetan menu berezia, familia guztiarentzat aproposa!

Ondo pasa Santiotan!

Tel. 943 36 28 49 egin zure erreserba!
Urbitate kalea 1, 20160 Zubieta

SANTIOAK, HARREMANAK SENDOTZEKO TRESNA

Badatoz Santioak. Ondo pasatze-ko astea Zubietara doazenez-tzat, baina bitarteko ezin ego-kiagoak etxekoentzat, Zubietak duen herri izaera eta herritarren arteko harremanak sendotzeko. Jai Batzordeak prestaturiko egitaraua horren isla argia da. Santio eta San Inazio Egunak lotuko dituzten zazpi jai egunak ate joka ditugu jada. Uztailaren 24tik 31ra, belausal-di ezberdinetako herritarrak mo-
du parte hartzailean jaietz go-
zatzea, horixe Jai Batzordearen desioa.

Zertan dira bereziak Zubietako Santioak?

Jai Batzordea: Gazteek osaturiko elkarteak izan da urteotan Jai batzordea. Halere, urtean zehar antolaketan lanetan gu aritzen garen arren, festetan herritar askoren laguntza jasotzen dugu eta eskertzekoa da. Bestalde, Zubietan berez herri txikia denez, jaietan herri giroa bilatzen da.

Azkenean, jaietako zazpi egunak denon artean harremantzeko eta denok batera jaietz gozatzeko aitzakiak dira.

Errelebo bat eman da jaien antolaketan?

Aurten izan da aldaketa handienetarikoa. Azkenean konturatzen gara zenbat lan dagoen festa hauek antolatzen. Kanpotik ikusten dena eta gero barruan zenbat lan dagoen ikustea, desberdina da. Bi udal izanda gainera, tramiteekin lan bikoitza izaten da. Pauso asko eman behar dira. Iaz adibidez, festak bukatu eta gutxira, Donostiako Udaletik aurten-
go egitaraua osatzeko data eskatu zizkiguten. Udalen arazo handiena da, mugak ez daudela oso argi.

Festa gunea ere bitan zatitua dago ezta?

Frontoia Donostiakoa eta plazako zati batzuk Usurbilgoak omen dira. Elizako ate bat donostiarrena, bestea usurbildarrena...

Eta jai egun asko, lana biderkatuko du horrek?

Jai egun guztiak, ez dira goizetik gauera arteko jai egunak, baina denetan dago zerbait. Egun batean etenaldia izaten da, nahita hartzen dugu egun hori, ja-



Jai Batzordea:
"Festetan herritar askoren laguntza jasotzen dugu eta eskertzekoa da"

Maialen Iñarra, Unai Azpiroz eta Arantzazu Zubimendi, Jai Batzordeko kideak.

raian datorren Gau Pasa Eguna antolatu eta atsedean hartzeko.

Santioetan denetarik egitea egokituko zaizue ezta?

Guretzat festak lehenago hasten dira. Urteroko lanaz aparte, bizpahiru egun lehenago, plazan mugimendua izaten da txosnak eta oholtza muntatzen... Batzutan bada inpresioa, oraindik prestaketa lanetan aritzen garela festak hastear diren unean.

Inguruetako herrietan gorabeherarik izaten da jende mugimendu aldetik. Zuek zer sumatzen duzue Santioetan?

Lasarte eta Usurbilgo lagun asko etortzen dira, bi herrien tartean gaudelako. Kontzertu handiren bat dagoenean ere kanpokoak etortzen dira. Ez dugu arazorik izaten alde horretatik. Usurbil eta Lasarteko jendearekin kontaktatzen dugu gehienbat beti, bai baitakigu etorriko direla ia seguru. Jendeak ondo pasatzen du gainera.

Zubietara datorrena oroitzapen politarekin joaten delakoan gaude.

Jaietako egun jendetsuenak...

Konzertu gauetan; Gau Pasa egunean, larunbatetan. Beste egunetan herriko jende nahiko ibiltzen da, Jubilatuen Egunean adibidez. Umeen Egunean, Usurbilgo eta Lasarteko haurrak etortzea tokatu izan zaigu. Egunean zehar ere jendea ibiltzen da.

Jai Batzordekoen helburua: "Herritarrak jaietan inplikatzeko"

Olinpiadak ospatu zenituzten iaz estreinakoz. Zer moduz atera ziren?

Olinpiaden ideia sortu genuenean guk ere ez genuen argi zer ziren, baina herritarrek parte hartuko luketen ekintza bat izatea nahi genuen. Egitaraua dena emanda zetoirela ikusten genuen. Horregatik, jendeak benetan jaietz gozatzea nahi genuen.

Orduan bururatu zitzaizkigun joko batzuk antolatzea. Hasieran egun baterako, baina gero lehia sortzeko, jarraipen bat eman genion, txosnetan emaitzak jartzen joan ginen. Egun gehiagotara luzatu genuen eta polita atera zen. Jendeak ondoen baloratu zuena, taldeak osatzerakoan belausal-di ezberdinetako herritarrak nahastean genituela izan zen. Jendea animatu zen eta gustura parte hartu zuten.

Harremanak sendotzeko ekimen baliagarria izan zen beraz?

Hori zen gure hasierako helburua. Herritarren arteko giroa sortzea eta parte hartzea sustatzea. Herritarrak jaietan inplikatzeko. Aurten ere erreplikatzeko asmotan gara eta ia zer moduz ateratzen zaigun.

Txupinazoan, herri-argazki herrikoa

Antolatzaileek aditza eman dutenez, aurtengo txupinazoan izango da nobedaderik. "Alkatearen agerraldiarekin batera argazki herriko erraldoia aterako dugu. Festen hasiera batukadaz alaitua izango da eta horrenbestez, herritar guztiok bertara gerturatzea animatzen zaituztegu jaietako zapiarekin". Uztailek 24 osteguna, arratsaldeko 18:00etan.

Herri afariko txartelak, alde zurretik erosi

Herri Afarirako eta zikiro janerako sarrerak Alamandegin eta Barazarren jarriko dira salgai. Herri afaria uztaileen 24an izango da baina uztaileen 21 arte dago txartelak eskuratzeko epea (helduenak 22 eurotan eta haurrenak 12 eurotan).

Uztaileen 27an, Jubilatuen bazkaria

Uztaileen 27an igandea, Barazarren. Alde zurretik deitu beharko da tokia hartzeko (663 584 130 Maialen), uztaileen 24a baino lehen.

Uztaileen 31n, zikiro-jana

Zikiro jana uztaileen 31n egingo da, baina uztaileen 26 arte dago txartela eskuratzeko epea (helduenak 22 eurotan, eta haurrenak 14 eurotan). Txartelak eskuratzeko egunak errespetatzeko eskatu dute Jai Batzordeak.



Zikiro-janerako txartelak uztaileen 26ra arte egongo dira salgai.

UZTAILAK 24 - UZTAILAK 31

Uztailek 24 osteguna

18:00 Jaien hasiera: Txupinazoa Dinbi Banda batukadaren laguntzaz eta argazki herriko erraldoia. Jantzi dezagun jaietako zapi morea lepoan!

Egun osoan Olinpiadetan izen emateko aukera txosnan.

19:30 Dantzaldi musikala.

21:00 Herri Afaria.

Ondoren Itzarturen dantzaldia, eta gaua ongi amaitzeko... Karaokea!

Uztailek 25 ostirala

Santio Eguna

09:00 Esnadeia, Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.

10:30 Meza Nagusia.

Ondoren Hamaiketako guztiontzat eta soka-dantza.

17:30 Haurren Joko Garbi erakustaldia.

Jarraian Gazteen Errebote partidua: Zubieta vs Oiartzun.

Ondoren Buruhandiak.

19:00 Olinpiaden hasiera: taldeen osaketa eta lehenengo proba.

22:00 Herri Antzerkia.

Jarraian Musika txosnan.

Uztailek 26 larunbata

Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen irteera, Uxue eta Lierni trikitilarien eskutik.

14:30 Oilasko biltzaileen iritsiera.

16:00 Ginkana.

Ondoren Sardin eta piper jana.

22:00 Odolaren Mintzoa eta Ska-keitan musika taldeek eskainitako kontzertuak.

Jarraian Laiotz taldearekin erromeria goizaldera arte.

Uztailek 27 igandea

Jubilatuen Eguna

09:30 Meza.

12:00 Gaztetxoan antzerkia.

14:00 Jubilatuen bazkaria, Bara-

zar Jatetxean.

16:00 Olinpiadak: Sukaldaritza proba.

Ondoren Buruhandiak.

18:00 Patxi Ta Konpaina taldearekin dantzaldia.

22:00 Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Aitor Sarriegi, Uxue Alberdi.

Gai Jartzailea: Asier Azpiroz.

Uztailek 28 astelehena

Umeen Eguna

10:00 Jolasen hasiera.

13:30 Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala, eta gure kontu postrea eta sorpresa.

16:00 Jolasen jarraipena.

Jarraian Txokolatada eta buruhandiak.

19:30 Ur jolasak.

Uztailek 30 asteazkena

Guapasa Eguna

00:00 Kontzertuak: Kauta, Txapelpunk, Boston Jai. Goizaldera arte dantzatzeko aukera.

Uztailek 31 osteguna

San Inazio eguna

09:00 Zikiro prestaketaren hasiera.

09:30 Meza.

11:30 Errebote partidua.

14:00 Zikiro jana.

18:00 Gorritiren Show-a.

22:15 Olinpiaden amaiera.

00:00 Jaien amaiera traka eta suziriekin.

Amaitzeko Musika txosnan.

Oharrak: Jaietan gerta litezkeen ezbeharretan, Zubietako Jai Batzordeak ez du erantzukizunik.

Musika egunero egongo da txosnetan, gau eta egun.

Jaietan ez da onartuko eraso sexista, homofobo edo arrazistarik.



2014 SAN ESTEBANAK

gehigarri berezia



REGGAE ETA SKA, MATERIA GRIS TALDEAREKIN



Materia Gris Banda, edo MG, 2006. urtean osatu zen Igorren (Bizkaia). Arratia bailarako musikariak biltzen dira reggae eta ska estiloko talde honetan. 2010 urtean abesti pare bat grabatu zituzten "Arratia bailarako musikea!" diskorako. Arratia aldeko beste lau taldeekin batera osatu zuten konpilazioa. 2011 urtean eman zuten argitara lehen maketa bederatzi abestiz osatua. Desmond Dekkerren "007 shanty town" edo Skatalitesen "Guns of Navarone" bertsioak eskaini izan dituzte zuzenean.

XEXENAK ETA POTTOKAK, UMEEN EGUN HANDIAN



Marrakzi lehiaketa batekin hasiko da abuztuaren 2ko egitaraua. Ondoren, jolasean ibili eta saltoka aritzeko aukera izango dute. Xexenak eta pottokak 18:00etan hurbilduko dira San Esteban aldera. Eta indarrak berritzeko, txokolate-jana.

Mus txapelketa, abuztuaren 2an larunbatarekin
Bazkalostean, arratsaldeko 16:00etan hasiko da mus txapelketa. Izen-ematea ordea lehenago egin beharko da: 15:30ean.

HERRIKO DANTZARIEN SAIOA SAN ESTEBAN EGUNEAN



Usadioak hala dio: meza nagusiaren ondoren, ha maiketakoa San Estebango plazan. Zahagi Banaketa ere usadioaren parte baita, Espumosos Txapel-dunen eskutik gainera, dena esaten hasita. Usur-bilgo Dantza Taldekoak izango dira, beste behin ere, egun handian jai giroa ipiniko dutenak.

OILASKO BILTZAILEEKIN AMAITUKO DIRA FESTAK



Iaz oilasko biltzaileekin hasi ziren festak (argazkikoak). Aurten, ordea, azken egunean ibiliko dira, baserriz baserri, kantuan eta dantzan. Goizeko 6:00etan irtengo dira eta ondoren, bazkari eder bat zain izango dute Aialde Berri sagardotegian. Abuztuaren 4an, oilasko biltzaileen egunarekin amaituko dira festak.

ABUZTUAK 1 - ABUZTUAK 4

Abuztuak 1 ostirala

18:00 Txupinazoa!!

18:30 Jokoak adin guztietako jendearentzat.

Jarraian festei hasiera emateko luntxa jai batzordearen eskutik.

23:00 Materia Grisekin reggae gaua.

Ondoren Laket taldearekin erro-meria.

18:00 Umeentzako xexenak eta pottokak.

Ondoren, txokolatada eta bu-ruhandiak.

21:00 Herri afaria (norberak eka-rria, kafea, postrea eta kopa jai batzordearen eskutik).

Ondoren bertsolariak.

Gauean Laiotz taldearekin erro-meria.

eta Ingemarren eskutik).

18:00 Herri kirolak. Emakumez-koak eta gizonetzkoak.

Ondoren hirugihar banaketa eta Elustondo anai-arreben erromeria.

Abuztuak 2 larunbata

Umeen Eguna

11:00 Marrazki lehiaketa.

Ondoren, haurren jolasak eta bu-ruhandiak.

15:30 Mus txapelketarako izen-ematea.

16:00 Mus txapelketa.

Abuztuak 3 igandea

San Esteban Eguna

11:00 Meza nagusia.

Ondoren Zahagi Banaketa (Espu-mosos Txapeldunen eskutik) eta Usurbilgo Dantza Taldearen emanaldia.

14:00 Jubilatuen bazkaria Ken-tuene jatetxean (Berriola Fagor

Abuztuak 4 astelehena

Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria Aialde-Berri sagardotegian.

Antolatzailea: San Estebango Jai Batzordea.

Oharra: Jai Batzordeak ez du jai egun hauetan gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik hartzen.

Sartu www.noaua.com helbidean eta ezagutu gure webgune berria!

Albistegia, agenda, sare sozialak, merkatu txikia, komunitatea, agurrak, eguraldia, aldizkaria online, hemeroteka... guztion eskura!





Kentuene

JATETXEA

Sagaltxipi baserria, 23
20170 Usurbil · Gipuzkoa
Tlf: 943 361 127 · Fax: 943 373 317
www.kentuene.com

Ondo pasa Sanestebanak!

Haur Eskolako gurasoak, bertso bitartez eskerrak emanez



Hezitzaile izan direnei bazkarian eskaini zieten bertsoa da orri honetan batu duguna.

Haur Eskolako guraso talde batek gutun hau helarazi digu. Bertso baten bitartez, hezitzaileak eta Haur Eskolaren inguruan dabiltzanena lana goraiatu nahi dute. "Mila esker Usurbilgo Haur eskolako hezitzaile guztiei gure haurrak hezten laguntzeagatik. Aurtengoei eta aurreko urteetako. Mila esker, hainbeste eta hainbeste egiteagatik. Hainbeste partel goxo-goxo aldatzeagatik, liskarrak bideratzeagatik eta ekiditeagatik. Muxu eta besarkada goxo horientzat. Mila esker zuri ere, Amaia sukaldaria, hain janari goxoak prestatzeagatik. Baita zuri ere Daniel, ate, bixagra, armairu eta abar konpontzeagatik. Denoi mila esker, gure haurrak hain zoriontsu izaten laguntzeagatik. Esker onezko idatzi hau, gure haurren hezitzaile izan direnei bazkarian eskaini genien bertsoarekin amaitu nahi izan dugu.

*Nola laburtu barruan
pilatutako zirrara
Lixkarrak, muxu goxoak
negar-malko, par-algara
Sokapeko pasioak
Herrira ta azokara
Susiren doinu leuna
aiton-amonei eupada
Bazkaldu osteko siestan
lurrin goxodun izara
Josune, Vero, Nerea
Loraine eta Ainara
Bihotz txikion barruan
gorde dugu dena iada
Momentu gozo hauetaz
beti oroituko gara.*

2-3 urtekoen getetako gurasoak"

Bake Epaitegia, euskarazko zerbitzua bermatzetik gertuago

Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak, laster Bake Epaitegiko langileak 3. hizkuntza eskakizuna bete beharko duela jakinarazi dio Usurbilgo Udalari. "Lanpostuen zerrendak aldatzeko izapideak eginda, laster argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian bake epaitegien lanpostuen zerrenda aldatzeko dekretua. Dekretu horren eranskinean, prozesu eta kudeatzaile lanpostu bat sortuko da, 3. Hizkuntza eskakizuna du ezarrita eta derrigor-tasun data igarota dauka. Hortaz, argitaratu eta hurrengo egunetik postu hori beteko duen funtzionarioak 3. hizkuntza eskakizuna beteta edukiko beharko du". Horixe hitzez hitz, Eusko Jaurla-

ritzako Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak Usurbilgo Udalera bidalitako jakinarazpenak dioena. Beste modu batean esanda, azkenean laster, Usurbil eta Orioko Bake Epaitegietan, orain arte ez bezala, euskarazko zerbitzuak bermatua egon beharko luke.

Usurbil eta Orioko Udaletako alkateek, eta UEMAko lehendakariak euskaldunon hizkuntza eskubide urraketa hau konpontzeko iaz Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzari, Arartekoari, Hizkuntza Eskubideen Behatokiari eta Elebideri eginiko eskaera betetzear da beraz. Erabakia aldizkari ofizialean argitaratu bezain laster jarriko da indarrean.

"Freskagarriak 2014", udal liburutegiaren udako eskaintza

Iritsi da uda eta udarekin batera, "Freskagarriak 2014" eskaintza. Sutegi Udal Liburutegiak ere bat egiten du kanpaina honekin eta idatzi hauxe partekatu dute noaua.com web orriko Komunitatean: "Freskagarriak, bai, urteroko liburu eta ikusentzunezko gomendio bilduma, Buruntzaldeko beste Liburutegiaren elkarlanean udan argitaratzen dugun hori.

Hori eta askoz gehiago aurkituko duzue, uda sasoiaren ere, Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegian. Udako ordutegia berriz, hauxe: astelehenetik ostiralera, 9:30etatik 14:00etara (Irailak 7a bitarte).


Gogoratu maileguak itzultzeko buzoia ere erabilgarri duzuela. Eta gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, telefonoa ez ezik, sare sozialak ere erabil ditzakezue".

Liburutegia non?

Iraza 14 kalean.

Eta sarean?

Bloga: <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usbil/>
Twitter: @usbilb
Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia Noaua! Komunitatea: Sutegi Udal Liburutegia



Eskuko telefonoan, App baten bidez

"Baliabide berri honen bidez, zuen gailu mugikorretan (telefono edo tabletetan) ikusi ahal izango dituzue Liburutegi ezberdinetako albisteak, ekitaldiak, blogak; Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) liburutegietan mailegatuenak diren dokumentuen zerrenda kontsultatzeko aukera izango duzue, eta nola ez, sareko katalogoa erabiltzeko (bilaketak, mailegu eskaerak, erreserbak, epe luzaketak...)", Liburutegitik aditzera eman zigutenez, duela aste batzuk NOAUA!ren bitartez. Noski, "Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegiaren berri(ak) ere, bertan daude kontsultagai".

Aplikazioa zure IOS gailurako (iPhone/iPad) izan nahi baduzu, deskarga ezazu App Store-tik. Android-erako ere erabilgarri dago; deskarga ezazu google play-tik.

Informazio gehiago, Liburutegian.

40 tona tapoi batu ditu

Biurte eta sei hilabeteren ondoren, tapoi bilketari amaiera eman dio Beñat Lizasok. "Azkenean, 40 tonelada tapoi lortu ditugu. Ez da lan erraza izan, baina ilusio handiarekin eta familia, lagun eta pertsona askoren laguntzarekin lortu dugu", NOAUA!ri igorritako idatzian jakin dugunez. Korrika egiteko protesi bat erostea du helburu.

"Azken ebakuntzaren ondoren, hanka berriro jartzen hasi naiz eta pixkanaka berriz ibiltzen ikasi behar dut. Baina nire helburua berdina da: korri egitea. Beraz, hau lortzen dudanean jakinaren ganean jarriko zaituztet", hala azaldu nahi die Beñatek kanpaina honetan parte hartu duten guztiei.

"Azkenik, eskerrak emateko idazten dizuet, zuek gabe hau ez bainuen lortuko. Eskerrik asko usurbildarrei!". Bilketa hau ordea, Usurbildik haratago joan da. Eta beste herri batzuetan ere harrera beroa izan du. Haiei ere eskerrak emateko asmoa du usurbildar gazteak.



Bizikletan, palan... Kirol ugari egiten du Beñat Lizasok (argazkian, ezkerretara). Korrika egitea du amets eta protesi bat behar du horretarako.

Usurbilgo mugak gainditu ditu Beñaten ekimenak

Bi ikasturtetan jarraian, Irungo Txingudi Ikastolan plastikozko tapoi bilketa egin dute, Beñaten alde. Hitz hauekin azaldu zuten egitasmoa, ikastolako web orrian.

"Bilketa honen helburua Beñat Lizaso gazteari laguntza ematea da. 13-14 urterekin bizikletan zihoala, kamioi batek harrapatu eta hanka galdu zuen. Handik aurrera ere kirolari izaten jarraitu du: palan ibiltzen da gurgildun aulkiari, bizikletan ibiltzen da, igerian egiten du, ... Bere ametsa eta erronka korri egin, triatloian parte hartu eta Brasilen 2016an izango diren Olinpiar Jokoetan parte hartzea da.

Korri egin ahal izateko hanka bateko prote-



Tapoiak eskuetan, Irungo Txingudi ikastolako ikasleak.

sia behar du. Protesi horrek, baina, prezio altua du, eta diru hori eskuratzen lagunduko diogu tapoiak bilduz".

Tapoiez betea zuen etxekoa garagea



Denboran luzatu da bilketa kanpaina baina erronka gainditzea lortu du.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Usurbil Cup, iraileko lehen asteburutik



Iazko Usurbil Cup txapelketaren "familia erretratu". Aurten irailean jokatuko da.

Usurbil FT-k haur eta gaztetxoei zuzenduriko lagun arteko txapelketako lehen neurketak, iraileko lehen asteburuan jokatuko dira; irailaren 5etik 7ra. Hilabete osora luza-

tuko da txapelketa. Ekimena abiatu aurretik, Usurbil Cup-erako arautegia banatzeko bilera bat egingo dute antolatzaileek, aurtengo edizioari begira-ko ohar eta jokamolde egokiak gogorazteko.

Santio Egunean, joko garbi erakustaldia eta errebote partida Zubietan

Santioetako Jai Batzordekoek aditzera eman dutenez, helburu pedagogiko bat du ekimen honek: "Joko Garbi eta erreboteari garrantzia handiagoa eman nahian, Santio eguneko arratsaldean herriko haur eta gazteen eskutik lagun arteko partidak izango ditugu Zubietan". Uztailaren 25ean ostirala, 17:30etik aurrera.

Jarraian, Zubietan eta Oiartzungo gazteen arteko errebote partida jokatuko da.



17:30etik aurrera hasiko da erakustaldia.

Euskal Kopan, Lehen Nazionalen eskubaloia taldea

Lau taldeetan banaturiko 15 klubek parte hartuko dute Euskal Kopan, abuztuko azken astetik aurrera. Zilarrezko Ohorrezko Mailan dauden Bidasoa Irun, Amenabar ZKE eta Calmec Barakaldok. Baita taldeotan banaturiko beste 12 elkarteek ere, usurbildarrak tartean:

2. taldea: Somos Eibar Eskubaloia, Bigara Pulpo K.E., Hondarribia, Ereintza Aguaplast.

3. taldea: Usurbil K.E., Alcorta Forging Group, Ford Mugarri Arrasate, Tolosa C.F.

4. taldea: Amazsa Urdaneta, Quirón Askartza, Balonmano Romo Indupime, Trapagaran.

Kopako egutegia

Ligaxka itzuli bakarrean jokatuko dute usurbildarrak. Abuztuko azken astetik aurrera hiru astez beste hainbeste neurketa izango dituzte, jada 1. nazional mailan dagoen senior mutilen eskuba-



loi taldekoek. Hortik talde bakoitzean lehen postuan saikaturikoak igaroko dira bigarren fasera. Baita bigarren onenak ere. Bigarren onenok, zenbait irizpideren arabera hautatuko ditu Euskal Eskubaloia Federazioak: puntu kopuru altuena, golen arteko diferentzia handiena, gol kopuru gehien sartu dutenen artean. Berdinketa egongo balitz, berdinduta dauden taldeen arteko zozketa egingo da. Hortik aurrerako egutegia hemen:

■ Final laurdenak: partida bakarrera, abenduaren 8tik 10era.

■ Finalerdiak: urtarrilaren 5etik 8ra.

■ Final handia: martxoaren 19an.

Lehen Nazional Mailan arituko dira

Usurbil Kirol Elkarteke senior mutilen taldea 2014-15 denboraldian Lehen Nazional Mailan arituko da. Ika-mika eragin zuen igoera faseak baina azkenean hirurak igo dira: galegoak, asturiarrak eta usurbildarrak. Aldaketarik ez bada, irailaren 20ko asteburuan jokatuko dute Liga-ko lehen neurketa.

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, n°2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

TAXI
24 h
USURBILEN
677 37 34 66 } Joxe
943 36 21 78 } Etxabe

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ETXEBIZITZA**Salgai**

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde-jangela, komun bat, gas naturala. 619 212 860/ 685 228 194

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukalde. 156.000€ Tel. 699 680 265.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m² lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAk ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logetetako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Kaxkoan etxebizitza alokagaitzarietara 3 logela 2 komun, egongela, sukalde eta trasteleku. 618860 270.

Pisu bat alokairuan erdigunean. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde, trasteleku eta garajea. Egoera onean. Tel. 627 379 973.

Alkartasuna Kooperatibak etxebizitza bat alokatzen du Barrenkalean. Egongela ederra, 3 logela, 2 bainugela, 2 terraza eta garaje itxia ditu. 943361114.

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela eta apartamentu bila nabil Usurbil, Orio eta Lasarte inguruan. 631 277 061

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570€. 2 solairu, 2 hilabeteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600€. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela batak lagai. 250 euro + gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berritua, 2 logela. Urtarriletik aurrera. Fiantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukalde, egongela eta

terraza handi bat. 688 863 366

MOTORRA**salmenta,****garajeak**

Garaje itxia salgai. 20 metro karratuko. Kale Nagusia, 2-4-6an. 649895858.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa. Telefono zenbakia: 667984083

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

LANPOSTUAK

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Tel. 608 299 579.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Inter-

na bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezela, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketalaran edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilarena ere. Lan prebentzioiko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu inter-najoateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarrekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. Tel. 638 602 597.

Neska euskaldun batekin lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, hel-

duak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka... Paperak ongi eta erreferentziarekin (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest: LHN ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu inter-najoateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarrekin. 619511789 / 943 760418.

Erizain laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixok edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriarekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konponitzeko eta goizez etxeak garbitze-



Zorionak Ekhi!
Uztailaren 22an

ospatuko dugu zure laugarren urtebetetzea. Muxu potolo bat!



Zorionak Irati!
Abuztuaren 5ean, 4 urte egiten

ditu gure etxeko erreginak. Zorionak eta ondo ondo pasa.



Zorionak Danel!
Uztailaren 11n 4 urte egingo dituzu!!

Muxu potolo pila bat etxekoan partez, maite zaitzugu bihotza!



Zorionak Aratz!
7 urte beteko dituzu 26an.

Kandela guztiak itzali eta ondo pasa! Muxu bat. Unax, Oihan, June eta Anje.



Zorionak Eñaut!
Uztailaren 13an 9 urte bete zenituen...

eta ze ondo ospatu genuen eh? Muxu potolo bat zure familiaren partez.

ko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrak eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzailen moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaitxo dauden pertsonen erizaintzarako emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zainduzein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udan zehar goizez zehar arratsaldean. Irakaskuntza graduatu bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zehar. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizean arratsaldean. Irakaskuntza diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketean. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketean eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein orduetan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta

formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria presatu... Garbiketara lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenierritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldean 6-12 urteetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH

1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guzti-tan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo internan moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketara lanetarako. 618 030 296.

BESTELAKOAK

Poltsa bat utzi dut Errekatik pasealekuan. Norbaitek aurkitzen badu, Noaualko bulegora eraman.

Pultsera bat galdu nuen ikastola eta kiroldegi artean, zilar kolorekoa eta bi hartzatxorekin. Aurkitu duenari bueltatzea eskertuko nioke 607 168352 zenbakira deituz.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40 (Aitor).

Oxelo markako patinete bat galdu dut. Beltza eta arrosa. Askatasuna plazan. Aurkitzen duenak Patriara eraman, edo deitu 943 507 230.

Zaldi-terapia egiteko, egokitutako lokal bat, landa eremu bat edo lur-sail bat alokatu nahiko genuke proiektu bat aurrera ateratzeko. Igor Aizpuru. Tel. 606525707.

Niki txuri manga luze bat galdu dugu Erreka Txiki inguruan. Katu baten marrazkia eta perlaboak ditu. Aurkitu baduzu, deitu 943 37 04 03 telefono zenbakira.

Gidari arduratsua bateskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Valentziako mandarina ekologikoa salgai. 1€ kilo. Bitartekaririk gabe. Tel. 637 929 093.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egin da. 637974994

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatean: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udalzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztxea	943 362 163
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak uztailak 17 - uztailak 27

Osteguna 17 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Ostirala 18 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Larunbata 19 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Igandea 20 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Astelehena 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

Astearte 22 ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

Asteazkena 23 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Osteguna 24 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Ostirala 25 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 26 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 27 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Udako gainontzeko datak kontsultatzeko: <https://www.cofgipuzkoa.com/>

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda uztaila

17 osteguna

- **Udabentura: irteera Hernaniko igerilekura**, 15:00-19:15, Gaztelekutik abiatuta. DBH 2ko gazteentzat.
- **Ri ta Carrere Mikel Laboa plazan**, Laboaren UZTAila, bakarlarien zikloa. 21:00.

18 ostirala

- **"Udako Eskolen balorazioa"** 17:00etan Usurbilgo gaztetxean.
- **Palestinar herriari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea**, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

21 astelehena

- **Udabentura Gaztelekuan: irteera Donostiako irlara**, 12:50-19:05, Gaztelekutik abiatuta. DBH 2ko gazteentzat.

Oporretatik bueltan, festa giroan murgilduko da Atxegalde



Txupinazoa abuztuaren 29an egingo da.

kasturte berriko zurrunbiloan sartu aurretik, gerturatu Atxegaldera abuztuko azken asteburuan. Jaietan izango baita auzoa. Urtero hiru egunez festek bereganatzen duten plazara hurbiltzera gonbidatzen dituzte auzotar eta herritarrak Jai Batzordeko kideek. Aldaketaren bat edo beste egon litekeen arren, prest dute jaietako egitaraua:

Abuztuak 29, ostirala

17:30 Herri poteoa txarangarekin.
20:00 Txupinazoa.
Jarraian, txoznen irekiera eta luntx mundiala.
23:00 Kontzertu gaua: Juanantzoneko okupak, Izeberg taldea, Skasti, Ingo al deu?

Abuztuak 30, larunbata

11:00 Umeentzako jokoak eta opari banaketa.

14:00 Herri bazkaria (norberak bazkaria etxetik ekarria).

16:00 Mus txapelketa (15:30-16:00 izen ematea).

18:30 Haurrentzat antzerkia. Ondoren txokolate-jana.

21:00 Afaria.

Gauean: Zesuma taldea. Dj Gude.

Abuztuak 31, igandea

11:30 Umeentzako toka.

12:30 Helduentzako toka txapelketa. Inskripzioa 3 euro, lehen saria 100 euro.

Bitartean, salda eta pintxo banaketa.

17:30 Body Combat saioa.

18:30 Patata tortilla lehiaketa.

19:30 Erromeria Imuntzo ta Belokirekin!

22:30 Azken traka.

Datozenak

Laboaren uztaila

Mikel Laboaren omenez Usurbilgo Gaztelekuek antolaturiko bakarlarien saioen zikloa ostegunero 21:00etatik aurrera bere omeneko plazan, hilabetea amaitu arte:

Uztailak 17, osteguna

21:00 Ri Ta Carrere.

Uztailak 24, osteguna

21:00 Isuo Sassia.

Uztailak 31, osteguna

21:00 Beñat Antxustegi.

Tokia: Mikel Laboa plaza.

Antolatzailea: Usurbilgo Gaztetxea.

Gaztelekuko Udabentura, azken txanpan

Aisialdiko ekingintza gehiago 12-16 urte arteko gazteentzat, Gaztelekuen eskutik:

Uztailak 17, osteguna

15:00etatik 19:15etara Hernaniko igerilekura (DBH2).

Uztailak 21, astelehena

12:50etik 19:05era Donostiako irlara (DBH2).

Uztailak 24, osteguna

12:50etik 19:05era Zarauzko hondartzara (DBH1).

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



ROMERO MERTZERIA

- Mertzeriako produktuak
- Jostailuak
- Bazar artikulua
- Diru-zorroak...

Dena
%50!

ITXIERAGATIK LIKIDAZIOA!

Munalurra 8, USURBIL

BOX Alokairua

3 igogailu + erreminta guztiak



Autokarabanak, furgonetak, quads, motorrak eta abar...
Zuk Zeuk konpontzeko toki eta erremintak

ORDU ERDIA : 10€
Ondorengo minutuak : 0,35€
2 ORDUTIK AURRERA DESKONTUA !!

Eta nahi izanez gero laguntza !!
Olio, balazten, eta abar en zerbitzua

Ugaldea Pol. 9 - 4. Nabea - 3. Lokala - 20170 Usurbil

www.iruinsagardotegia.com
www.astiazaransagardoak.com



Ondo pasa Santioak!

Iruin Sagardotegia eta Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g, Zubieta
943 361 229

SANATORIO de USURBIL

USURBIL g o SENDATEGIA



San Esteban, 48. Tel: 943 36 11 24 Fax: 943 36 28 98
info@sanatoriodeusurbil.com www.sanatoriodeusurbil.com



Ondo igaro festak!

